


# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 14a / 476. zenbakia



## Jolasean bizitzen ikasi

Jostailuen funtzioak  
aztertzeko erakusketa  
osoko bilkuren aretoan

ANTZERKIA: LAUREL ETA HARDY NOVEDADESEN/12 • MUSIKA: SAN JOXEPEKO ABESBATZA ZUMAIARA/14



# Ez galdu aukera handi hau

**HIL BUKAERA  
ARTE BAKARRIK**

## Opel Astra



1.760.000 pezetatik bakarrik hasita.\*

### EKIPAMENDUA

- Motorra 1.6 84 ZP.
- ABS balaztatze sistema.
- Aurreko eta alboetako aire-poltsak.
- Aurrealdeko buru-euskarri aktiboak.
- Pedal erretraktiak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Bolantea altueran eta sakoneran erregulagarria.
- Lapurreten kontrako itxitura elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua. 12 urteko bermea korrosioagatik zulaketa gertatzen den kasuetan.

Eta diesela DTi 16V 2.046.000 pezetatik hasita.\*

## Opel Vectra

2.300.000 pezetatik bakarrik hasita.\*

### EKIPAMENDUA

- Motorra 1.6 16v 100 ZP.
- ABS balaztatze sistema.
- Aurreko eta alboetako aire-poltsak.
- Aurrealdeko buru-euskarri aktiboak.
- Goi-fidelitateko audio katea.
- Aurrealdeko kristal-igogailu elektrikoak.
- Kanpoko atzera-ispilu elektriko eta termikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Bolantea altueran erregulagarria.
- Lapurreten kontrako itxitura elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua. 10 urteko bermea korrosioagatik zulaketa gertatzen den kasuetan.
- Aire girotua.

Eta diesela 2.0 DTi 16V 2.675.000 pezetatik hasita.\*



[www.opel.es](http://www.opel.es)

OPEL CREDIT

123

1, 2, 3 aukerak: Beti auto berria izateko modurik errazena.

\*10.577,81€ Astra Club 3 ate 1.6 8v 84zp. 12.296,71€ Astra 3 ate 1.7 DTi 75zp. 13.823,28€ Vectra Comfort 1.6 16v 100zp. 16.077,07€ Vectra Comfort 2.0 DTi 16v 100zp. Fabrikatzaileak gomendatutako salneurriak Penintsulan eta Balear Uharteetan. Bame hartzen du: garraioa, BEZ, matrikulazio zerga, sustapen deskontua eta preber plana berundun gasolinazko autoetan (gasolinazko motorretan) edo preber plana dieselezko motorretan. Baliozko eskaintza hil bukaera arte. Matrikulazio datuak DGTk emanak (2001 eko urtarril-iraila).

**OPEL**   
gasolinazkoen salmentan lehenak

# TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA

Zerbitzu Ofiziala

## TAKOLO AUTOAK

Araba Ertobidea. Tfnoak. 943 77 30 10. ARRASATE

## ATREBENTZIAEZPADA/ Jostailu erakusketia antolatu dabe. Zein izan da zure jostailu polittiena?



**VICTORIA LARRAÑAGA**  
69 urte

Animaliak; baserrixan, animaliak ziren gure jostailuak, haretzekin jolas egiten giñuan, haretzek ziren gure lagunak. Bestelako jolasak be egiten giñuzten, geuk asmatutakuak.



**VERONICA EUGENIO**  
21 urte

Neretako *La casa de Chabel* izan zan jostailurik onena. Sukaldia, egongelia...danetik zeukan. Zazpi edo zortzi urterekin oparitu zosten, eta sekulako ilusiñua egin zostan.



**YOLANDA LOZANO**  
34 urte

Nere ilusiñua animalixa edukitzia zan, txakur bat edo katu bat... Baiña ez zosten lagatzen. Bestela, niri edozer gauzak ilusiñua egitten zostan, edozerrekin konformatzen nintzan.



**JOSE HORRILLO**  
33 urte

Pedalak zeuzkan kotxe txiki bat eduki neban, eta geratu be ez nintzan egitten, apurtu arte. Txikixa zan, baiña deportibo itxurakua zan, eta argiak eta dana zeuzkan.



**JOSE LUIS KAPANAGA**  
72 urte

Berunezko pistola batzuk; *ronpekabesasak* be asko gustatzen jaten. Garai hartan ez zegoen gaur egungo aukerarik, eta guk dirurik be ez geunkan jostailuak erosteko.



**JUANTXO JIMENEZ**  
31 urte

*Skalestrixa* duda barik. Beti eduki neban horrelako bat edukitzeko gogua, eta azkenian, neuk erosi bihar izan neban, 20 bat urte neuzkalla. Orain be ibiltzen naiz, han daukat etxian.

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK KAMIOIAK ABIADURA HANDIAN** Angiozarrera bidean, Eibar-Gasteiz autobideko lanak direla eta, kamioi ugari ibiltzen da gora eta behera. Dirudienez, darabilten abiadura nahiko handia da. Halaxe kexatu zaigu irakurle bat. Azkarruntz auzokoa da, eta bidean kamioietatik eroritako harriez gain, inoiz auzotarren segurtasuna arriskuan ere izan dela aipatu du. /MONIKA BELASTEGI

### ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6

#### Jostailuen funtzioak

Jostailuen inguruko erakusketia antolatu du Ongizate sailak 15etik 17ra bitartean osoko bilkuren aretoan.

KIROLAK /10

#### Bergara Igeri Elkarte

Igeri elkartearen zazpi eta hamazazpi urte bitarteko 57 igerilari ari dira aurtengo denboraldian.

KULTURA /12

#### Oñatiko Abesbatza

Oñatiko Ganbera Abesbatzak emanaldia egingo du zapatuan, Mariaren Lagundiako elizan.

### ASTEKO DATUA

# 57

#### BERGARA IGERI ELKARTEAN DIHARDUTEN IGERILARIAK

Horixe da, hain zuzen ere, aurtengo denboraldian herriko igeri elkartearen ari diren lagunaren kopurua. Igerilari oso gazteak dira, gainera; guztiak zazpi eta hamazazpi urte artekoak.

### BESTE EKESANA

“Denok onartu ohi dugu zientziarako, ikerketarako, irakaskuntzarako... formazioaldi sendoa behar dela. Are gehiago, bere jakintza formazio arautuaren bidez jaso duena bakarrik hartzen dugu espezialistatza. Baina zientzia esperimiental jakin eta jabe ditugun gizarte honetan, badirudi arlo horretako estandarrak ez direla erabiltzen beste arlo batzuetan. Horrela, irakasteko nahikoa omen da prestakuntza labor nolabaitekoa eta borondate ona; historialari edo kazetari izateko nahikoa omen da autoikas-kuntzarako gaitasuna eta borondate ona; edo, natorren harira, itzultzaile lanetarako nahikoa omen da bi hizkuntza jakin eta zaletasuna izatea.

**IÑAKI UGARTEBURU**  
Euskaldunon Egunkaria/01-11-30

### BERAIEK DIÑOE/ Xabier Azkoitia



*Kale gorrian*

Egun gutxi dira, “Aterperik gabekoen eguna” ospatu egin dela. Hainbat gizon-emakume ikusten ditugu, batetik bestera, inora ezean; pobrezia soinean, gure etxetara ate joka, laguntza materiala eta babes eske. Era berean ikusten ditugu Parrokietako ateetan edo gure kaleetako txoko eta bazterretan, kartoiak ohetzat hartuz eta gaua kale gorrian pasatzen. Badirudi kopurua hazten doala, gazteak eta emakumezkoak ugariagoak direla. Ez da behin-behineko egoera, kronifikatu egin dena baizik. Nahiz eta abiapuntu ezberdinetatik atera den ba-koitza, helmuga berean elkartzen dira, kale gorrian hain zuzen.

Egoera ez da erraza, denda aurreko limosna edo eliza atarikoak ez gaitu lasaitu behar. Erabiltzen ditugun planteamenduek teoriarik ez dute, baina kaleratzen ditugunean ez dute ematen uste genuen etekina, erakundeek ez

dute lortzen aterpetxe bidetik erantzun egokirik ematea; eta guzti horren ondorioz bizitzeko modu hori ugaritzen ari dela dirudi, arazoaren sustraietara jotzen ez delako eta plan integralekin esku-hartzea ukatu egiten delako. Halere, etxerik gabekoak ezin ditugu ahaztu. Gure anai-arreba direlako, eta guztiei aukera berberak eskaintzen ez dizkien gizarte baten biktima direlako. Pertsonak dira eta horrela hartu behar ditugu. Pertsona hauek birgizarteratzea eta lan munduan

**“Etxerik gabekoak, nahiz eta abiapuntu ezberdinetatik atera, helmuga berean elkartzen dira; kale gorrian”**

sartzea prozesu geldoa eta zaila da, baina aldi berean larria eta beharrezkoa. Lehenik eta behin, gutako askoren aurreiritziek aldatu egin behar dute, ginetik kentzen ibili beharrean harrera positiboz hartuz. Bitartekoak eskainiz, giza baliabideak zein materialak ahalbidetuz, era horretan, gehiengoarentzat ezinezkotzat jotzen dena, gauzatzen ari den egia bihur dadin: Etxerik gabekoen bergizarteratzea.

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
MAKETAZIOA  
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereziabar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zehitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 14**  
GUALLAR, San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- ZAPATUA, 15**  
ESTELLA, Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- DOMEKA, 16**  
ESTELLA, Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 17**  
MOZOS, San Pedro 4. .... 943 76 12 15
- MARTITZENA, 18**  
CAMÁCHO, Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 19**  
PUY, Barrenkale 25. .... 943 76 16 87
- EGUENA, 20**  
GUALLAR, San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa .... 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa .... 943 76 62 46
- Ertzaintza .... 943 76 53 40
- Osasun etxea .... 943 76 24 40
- Asepeyo .... 943 76 16 43
- Pakea .... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua .... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua .... 943 76 62 23
- Odol emalleak .... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak .... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak .... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea .... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea .... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa .... 943 77 91 32
- Igerilekuak .... 943 76 20 51
- Kultura etxea .... 943 77 91 58
- Liburutegia .... 943 77 91 62
- Kirolegia .... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza .... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia .... 943 76 14 92
- Erregistroa .... 943 76 13 15
- Jardun .... 943 76 36 61
- Idolaz .... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara. .... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea .... 943 76 26 85
- Bedelkar .... 943 76 04 68
- Akulu AEK. .... 943 76 05 18
- Udal euskaltegia .... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza .... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |                     |                      |
|---------------------|----------------------|
| <b>Santa Marina</b> | Domekak: 10:30.      |
| Domekak:            | <b>Labegariaieta</b> |
| 11:30, 13:00.       | Domekak: 11:00.      |
| Zapatuak: 19:00.    | <b>San Lorenzo</b>   |
| Lanegunak: 19:15.   | Zapatuak:            |
| <b>San Pedro</b>    | 20:00.               |
| Domekak:            | <b>Angiozar</b>      |
| 09:30, 12:30.       | Domekak:             |
| Zapatuak eta        | 11:30.               |
| lanegunak: 19:00.   | <b>Moja</b>          |
| <b>Sierbak</b>      | <b>Zaharrak</b>      |
| Lanegunak: 19:30.   | Lanegunak: 8:00.     |
| <b>Osintxu</b>      | <b>Mizpirualde</b>   |
| Domekak: 12:30.     | Lanegunak: 11:45.    |
| Zapatuak: 19:00.    | Zapatuak: 17:30.     |
| <b>Elosu</b>        | <b>Antzuola</b>      |
| Domekak: 10:30.     | Domekak:             |
| <b>Ubera</b>        | 09:00, 11:30.        |
| Domekak:            | Zapatuak eta         |
| 10:30.              | lanegunak: 19:30.    |
| <b>San Juan</b>     | <b>Uzarraga</b>      |
| Domekak: 11:00.     | Domekak: 10:00.      |
| <b>Elorregi</b>     |                      |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
- San Pedro**  
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

**OHARRAK**

**ESKI ETA MENDI MATERIALAREN AZOKA TXIKIA**  
Eski eta mendi materialaren azoka txikia Pol-Polen zabalik, zapatura arte, hilak 15. Egubakoitzean 19:00etatik 20:30era eta zapatuan 18:00etatik 20:00etara.

**1977AN JAIOTAKOAK**  
1977an jaiotakoen bazkaria izango da datorren zapatuan, abenduaren 22an. Izena ematea Tito's tabernan egin daiteke.

**1927AN JAIOTAKOAK**  
1927an jaiotako bergararrek diamantezko ezteiak ospatuko dituzte 2002ko urtarrilaren 26an. Egun horretan 13:30ean elkartuko dira poteoa egiteko, eta 14:30ean bazkaria egingo dute Zumelaga jatetxean. Bazkalostean udarako irteera bat egitea aztertuko dute. Bazkarirako izena ematea Euskadiko Kutzako bulegoetan egin daiteke (2.000 pezetako depositoa ordaindu beharra dago).

**1951N JAIOTAKOAK**  
Joan den azaroaren 10ean 1951n jaiotakoen afarira joan zirenek, argazkia eta egutegia Kiñu argazki dendan jaso ditzakete. Egutegian Gabonetako loteriako zenbakia azaltzen da. 1.000 pezetako txartelak dira.

**JARDUNEN AGENDA**

**ASTE BUKAERAKO AISIALDIA**  
Zapatu arratsaldean eskulanak Kartzela Zaharreen. Domekan, berriz, lagun ezezagunaren eskulan oparia.

**'BERGARA EZAGUTZEN'**  
Abenduaren 19an bukatuko da izena emateko epea. Argibideak Jardunen: 943 76 36 61/943 76 08 19.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

**San Lorenzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegariaieta (Ekonoñatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegariaieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegariaieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**

**Felix Murua-mendiaraz txoferrarekin berriketan**

1991ko abenduaren 13ko alean Felix Muruamendiaraz elkarriketatu genuen. 1911n jaioa, gerra denboran Jose Antonio Agirre lehen Euskal Gobernuko lehendakariaren eta Telesforo Monzon sailburuaren txofer izan zen. Gerra amaitu ostean, erbestera jo behar izan zuen Parisera.



**BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Sukurutza"*



Izua, ikara.  
-Ilgo dabela amenazau dabe. Ori da sukurutza sartu dotsena.

**ASTEKO FILMAK**

**'SCARY MOVIE 2'**

ZUZENDARIA: KEENEN IVORY WAYANS. AKTO-REAK: SHAWN WAYANS, MARLON WAYANS, ANNA FARIS, TORI SPELLING.

**HARIA.** Bi psikopatarengandik ihes egin ondoren, *Cindy Campbell* hiri trankil batean bizi da. Haren lasaitasuna laster amaituko da, asteburu beldurgarria igaroko baitu lagunekin...

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedadesen. zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean, eta astelehenean 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●



**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Martitzena, 11	<b>-1°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Domeka, 9	<b>15°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>0,1 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 5	12°C	2°C	0,1 l/m²
Eguena, 6	12°C	6°C	- l/m²
Egubakoitza, 7	15°C	5°C	- l/m²
Zapatua, 8	14°C	2°C	- l/m²
Domeka, 9	15°C	1°C	- l/m²
Astelehena, 10	12°C	0°C	- l/m²
Martitzena, 11	12°C	-1°C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

**'EL FANTASMA Y LA SEÑORA MUIR'**

ZUZENDARIA: JOSEPH L. MANKIEWICZ. AKTOREAK: GENE TIERNEY, REX HARRISON, GEORGE SANDERS.

**HARIA.** Forum Cinematographe taldekoek film klasikoak berreskuratzen jarraitzen dute. Oraingoan Mankiewicz zuzendari ospetsuaren istorio erromantiko-fantastikoa aurkezten dizkigute.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedades aretoan. Eguenean, hilak 20, 20:00etan. Jatorrizko bertsioan.

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●



**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

PREBENTZIOA/ Legionellarekiko foku kritikoak antzematea du helburu azterketak

# Legionella prebenitzeko azterketa egin dute kiroldegian eta igerilekuan

MONIKA BELASTEGI

**Legionella prebenitzeko azterketa egin du Udalak igerileku eta kiroldegian. Azterketaren xedea da instalazio horietan legionellarekiko foku kritikoak zein izan daitezkeen antzematea, horren ondoren, beharrezkoak liratekeen neurriak hartzeko.**

Labegaraietako kiroldegian eta igerilekuan egin dute legionella prebenitzeko azterketa hori. Ez legionella antzeman dutelako, ezta inor gaixotu delako ere. Guztiz kontrako: hori guztia prebenitzeko baizik.


Iaz agertu zen Euskal Herrian lehenengo legionella kasua, Arbizuko kiroldegian, eta ondorioz itxi egin zuten. Azkena Laudio kiroldegian agertu da, eta hura ere itxi egin dute. Kasu horiek direla-eta, Gipuzkoako hainbat udalek kezka azaldu eta informazio bila hasi ziren legionella prebenitzeko helburuarekin, euren instalazioetan hartu ahal diren neurriak hartzeko. Kezka agertu zuten udal horien artean, Bergarako dago, Iñaki Ugarte buru Kirol Zerbitzuko ardura-dunak azaldu duen moduan.

Hori horrela, gaia aztertzeko batzarra egin zuten udaletako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat ordezkari Zarautzen, maiatzaren 31n. Eta Ugarte buru gogoratzen duenez, garai hartan oraindik ez zegoen prebentzio neurriak markatzeko irizpiderik, ezta araudirik ere. Legionella prebenitzeko eta kontrolatzeko irizpide higieniko-sanitarioak uztailaren 27an ezarri zituen dekretuz Osasun eta Kontsumo Ministerioak.

Hortaz, araudiari aurre hartuz, Zarautzen egindako bileran kirolguneetan legionellarekiko foku kritikoak zein izan daitezkeen antzemateko azterketa egitea erabaki zuten. Bergarako kasuan, igerileku eta kiroldegian.

## EMAITZARIK EZ, ORAINDIK

Dagoeneko azterketa eginda dago, Irati enpresakoak azaroaren 23an



Legionella prebenitzeko neurrien artean, dutxaren buruak desinfektatzea oso garrantzitsua da, bakteria metatu ez dadin.

*Kirolguneetan legionellarekiko foku kritikoak antzemateko egin dute azterketa*

ibili ziren azterketa egiten. Hala ere, diagnostikoaren zain dago oraindik Udaleko Kirol Zerbitzua.

Iñaki Ugarte buru azaldu duenez, legionella fokuak aire egokituaren eta ur beroaren instalazioetan izaten dira, batez ere, baina "Bergararen kasuan, aire egokiturik ez dagoenez, azterketa uraren instalaziora mugatu da". Irati enpresak, hortaz, honako egin du: ur beroaren hodite-

*Azken helburua prebentzioa da eta kiroldegian eta igerilekuan egin da azterketa hori*

rian legionella azaltzeko foku kritikoak zein izan daitezkeen aztertu, ondoren beharrezko neurriak hartzeko.

**MINISTERIOAREN PREBENTZIO NEURRIAK** Osasun eta Kontsumo Ministerioak uztailaren 27an ezarritako prebentzio neurriak bete behar dituzte orain herriko kirol instalazioek. Ur beroaren hoditeriari dagokionez, bi hauek, besteak beste: zirkuituan ura 70 gradura

*Azterketa eginda dagoen arren, oraindik ez dute Kirol Zerbitzuan emaitzarik jaso*

jartzea; legionellaren bakteria temperatura horretan suntsitu egiten delako. Ugarte buruaren esanetan, aztertze dago igerilekuetako hoditeria temperatura hori jasateko moduan dagoen. Horrela ez balitz, horren gaineko neurriak ere hartu beharko lirateke. Bigarrena, dutxetako erroziadoreak (dutxaren buruak) desinfektatzea. Hori, baina, Bergaran normalki egiten den gauza dela aurreratu du Ugarte buruak.

## LABUR

### Ur zerbitzua Udalak kudeatzea nahi dute Udal langileek

Udaleko Enpresa Komiteak gaitzetsi egin du ur zerbitzuaren gainean Udalak hartutako erabakia, hau da, zerbitzu hori Ur Partzuegoaren bidez ematea. Erabaki hori azaroaren 28an eta 29an egindako batzarretan aho batez hartu zuten Udal langileek, komiteko ordezkarien esanetan.

Ur zerbitzua Ur Partzuegoak ematea honako ondorioak ekarriko lituzke, langileen esanetan: batetik, enplegu publikoa galtzea; eta bestetik, azpikontratazio sistemarekin lan-baldintza eze-gonkorrak gehitzeaz gain, langileen arteko desberdintasunak areagotu egiten direlako, besteak beste.

Hori dela eta, ur zerbitzua dagoenetan uztea eskatzen diote Udalari, hau da, Udalaren gestiopean. Era berean, kalitatezko zerbitzu baten aldeko apustua egiten dutela gehitu dute; baita kudeaketa garbi baten alde eta kudeaketaren kontrol publiko eta enplegu publiko sortzearen alde ere.

### Hegaztiak aztertze bisitaldi gidatua Salburuara

Bihar, abenduak 15, barnealdeko hegaztiak ezagutu eta aztertze behaketa-irteera gidatua antolatu dute Mendia Bizirik eta Pol-Pol mendizale taldeek. Irteera ornitologiko hori Salburuara izango da, eta hegaztien gaineko azalpenak Kiko Álvarezek emango ditu.


Interesa duen edonork har dezake parte irteeran, aurrez izena eman beharrik gabe. Irteera 09:00etan izango da Pol-Pol Mendizale Taldearen egoitza aurrealdetik (Komenio kalea). Informazio gehiago mendizale taldearen egoitzan, astelehenetik eguenera 19:00etatik 20:30era, edo 943 764851 telefonoan.

# ZABALA

JATETXEA • OSTATUA

JAUNARTZEAK,  
EZKONTZAK, BATAIOAK,  
KINTOENTZAKO  
BAZKARIAK...

Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57



1929az geroztik zure zerbitzura

# iRUDI

Erloju denda  
Bitxitegia

Ibargarai, 2  
BERGARA  
943 76 51 65

ile  
apaindegia

edertze gela

# disdira

Masterreka, 7. BERGARA  
Tf. 943 76 00 55

# Dixula

BOKATAK  
DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tf. 943 76 44 95



Argazkian, San Martin ikastetxeko neska-mutikoak tailerlean.

MONIKA BELASTEGI

ERAKUSKETA/ Bihar hasi eta astelehenera arte egongo da zabalik

## Jostailuen funtzioak aztertzeke erakusketa

MONIKA BELASTEGI

**Jolasean bizitzen ikasi** izeneko erakusketa antolatu du Gizarte Ongizate sailak. Helburua da jostailu ezberdinak ezagutzeko gain, bakoitzak betetzen duen funtzioa aztertzea. Erakusketa bihartik astelehenera arte egongo da ikusgai Udaleko osoko bilkuren aretoan.

Gabonen atarian, umeendako hainbeste jostailu erosten den garai honetan, *Jolasean bizitzen ikasi* izeneko erakusketa antolatu du Udaleko Gizarte Ongizate Sailak. Erakusketaren oinarria jostailuak dira, eta bertan hainbat jostailu ezagutzeko aukera izango da. Horrekin batera, baita jostailu bakoitzak betetzen dituen funtzioak aztertzeke aukera ere, besteak beste. Horretara-

ko, bi lagunek jardungo dute, erakusketaren berri eman eta galderei erantzuteko. Erakusketa bihar, zapatua, irekiko dute, eta 16 eta 17an ere egongo da ikusgai Udaleko osoko bilkuren aretoan, 17:00etatik 20:00etara.

Erakusketarekin batera, abenduaren 17an, *Eguberriak eta jostailuak* hitzaldia egingo dute Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi taldeko bi kidek. Hori ere osoko bilkuren aretoan izango da, 18:30etik 20:00etara.

### TAILERRAK ESKOLETAN

Horrekin batera, jostailuen gaineko hainbat tailer egingo dituzte San Martin Agirre, Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastetxeetan. Tailerrok Lehen Hezkuntzako 1. eta 4. maila bitarteko ikasleei daude zuzenduta, eta dagoeneko hasita daude: Txatxilipurdiko kideak astelehenera

San Martin ikastetxean izan ziren eta martitzenean Mariaren Lagundian; Aranzadi ikastolan datorren astean izango dira.

Erakusketa, hortaz, ez da ekitaldi isolatua izango. Jostailuen gaia bi aldeetatik jorratu nahi izan dute antolatzaileek: gurusak erakusketarekin, eta seme-alabak eskoletako tailerrekin.

Tailer horiek helburu bat baino gehiago dute: batetik, Eguberriko bonbardaketa publizitarioaren aurrean jarrera kritikoa izaten erakutsi nahi zaie umeei; bestetik, jostailu garestienak ez duela zertan hoberena izan azalduko zaie; jostailuak erosterakoan, beste edozein gauza bezala probatzeko aukera dagoela azalduko zaie neska-mutikoei; eta, azkenik, jostailurik gabe jolasteko aukera ere badagoela, edo irudimenera norberak bere jostailuak ere egin ditzakeela.

## San Antonioko Nafar Feria urtetik urtera osatuago dator

MONIKA BELASTEGI

Datorren zapatuan, hilak 22, egingo dute San Antonioko auzotarrek dagoeneko ohitura bilakatzen ari den Nafar Feria. Azoka horretan Nafarroako hainbat herritako artisau jakiak izango dira nagusi.

Aurten, hirugarren urtea egingo du San Antonion Gabonen atarian egiten duten Nafarroako jaki artisauen azokak.

Abenduaren 22an izango da, San Antonioko plazatxoan, goiz osoan. Aurten, zortzi artisau egongo dira, iaz baino bat gehiago; Errioxako ardo artisaua, hain zuzen ere. Horixe da, hain justu, antolatzaileen helburua, azoka urtetik urtera sendotuz joatea; eta

era berean, egunean ekitaldi gehiago antolatzea. Nafar Ferian dastatu eta erosi ahal izango diren produktuen artean, ezta, hestebeteak, gazta, ahatekia, ardoa eta gozoak daude, besteak beste.

### GERO ETA EKITALDI GEHIAGO

Aurten, iaz baino ekitaldi sorta zabalagoa izango da feria egunean: goizeko 10:00etan, meza egongo da San Antonioko kaperan; 10:30ean, feria irekiko dute; 11:00etan, txistulariek alaitutako kalejira izango da; 12:00etan, Alai Taldea Otxoteak emanaldia egingo du eta hainbat Gabon kanta abestu; 12:30ean, Gure Ametsa elkartearen pintxoak egongo dira hurreratzen diren guztiendako, eta, azkenik, 14:30ean, bazkaria izango da.



Feria 10:30etik 14:30era bitartean egongo da irekita San Antonioko plazatxoan.

ARTXIBA

## LABUR

### Yoga ikastaroetan parte hartzeko deialdia egin du Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak

Udalak yoga ikastaro berriak antolatu nahi ditu. Horretarako, jakin nahi du gaur egun yoga ikastaroetan parte hartzeko zenbat jende dagoen interesatuta. Yogan izena emateko interesa duena pasa dadila Gizarte Ongizateetik edo 943 779125 telefonora deitu.

### Hirugarren Munduari laguntzeko bidezko merkataritza postua bihar San Martin plazan

Bihar, zapatua, bidezko merkataritza postua jarriko dute San Martin plazan, 10:00etatik 14:00etara. Harreman-ek, Debagoieneko gobernu kanpoko erakundeen bilkurak, antolatu du.



# izeder

ARTE DEKORATIBOKO  
ikastaroak

943 76 71 05.  
Arruriaga 2. BERGARA

# AKORT

Ipin ezazu zure ARGAZKIA PUZZLE BATEAN

BERRIA!

Izan zaitetz orijinala:  
ZURE OPARIAK LATA BARRUAN

Era guztietako  
kamisetak eta  
kirol-jertseak

Fotokopiak  
KOLORETAN

Enpresako OPARIAK  
egiteko, imajina  
dezakezun guztia:  
boligrafoak,  
agendak, aterkiak,  
ordenagailuendako  
alfonbratxo  
pertsionalizatuak...

Mugertza 7, BERGARA. Tel.: 943 76 50 39

ELKARRIZKETA

LIERNI GALLASTEGI/ESKLEROSI ANITZ GAIXOA

# “Esklerosi anitzak eguneroko bizitza guztiz mugatzen dizu; arlo ia guztietan, gainera”

MONIKA BELASTEGI

**H**ilaren 18an Esklerosi Anitzaren Eguna da. Gaixotasun nahiko ezezaguna da, bai medikuntzan, baita gizartean ere. Lierni Gallastegik gaixotasun hori du, eta hainbat gauza azaldu dizkiugu esklerosi anitzaren gainean.

## Zer da esklerosi anitza eta zein sintoma ditu?

Oso afekzio aldakorra da, eta nerbio sistema nagusiko zein zonarengan eragin duen kontuan izanda, sintomak ezberdinak dira. Gaixotasun honek ez du modalitate jakin bat, eta gaixo bakoitzaren sintomak ezberdinak dira. Hala ere, sintoma arruntenak honakoak dira, besteak beste: bikoitz ikustea, oreka galtzea, ikarak, beso zein hankaren batean baldartasuna, gogorfasuna, urduritasuna eta antsietatea. Ez da, beraz, jende ugari pentsatzen duen bezala, hezurretako gaitza. **Noiz diagnostikatu zizuten?**

Duela hiru urte. Aurpegian nabaritutako txindurritu bat zela eta dermatologoarenera joan nintzen. Eta handik Gurutzetara. Hainbat froga egin, eta han diagnostikatu zidaten esklerosi anitza, eta tratamendua jarri. Hori jakin, eta gaixotasunaren sinto-



MONIKA BELASTEGI

*“Esklerosia ez da jende ugari pentsatzen duen bezala, hezurretako gaitza”*

*“Eguneroko bizimoduan guztiz mugatzen zaitu esklerosi anitzak, lanean, familian...”*

*“Gogorra da aurrera egitea, niretzat eta familiarentzat ere; inpotentzia handia sentitzen dut”*

mak zein ziren ezagutu nituenean, konturatu nintzen sintoma horiek askoz lehenagotik nituela; 24 urte nituenetik.

## Eguneroko bizitzan zertan eragin dizu?

Guztitan. Asko mugatzen zaitu. Lanean, familian, bikotean, oporretan. Berehala nekatzen zara, umore aldaketa izugarriak izaten dituzu; ia ezin da bizimodu normalik egin. Gainera, ingurukoek normalean ez dute ulertzen gaixotasun hau, umore aldaketa horiek, beti nekatuta egotea, ia ezertarako gai ez izatea... Gogorra da, bai niretzat, baita familiarentzat ere, inpotentzia handia sentitzen dut.

## Zein tratamendu jarraitzen duzu?

Astean behin Interferon Beta injekzio bat hartzen dut. Diotenez, tratamenduan hasi eta bost urtera ezintasun fisikoaren metatzea gutxitzen du, bizi kalitate hobea eskaintzen omen du. Baina medikuek ere ez dakite oso ondo ez gaixotasuna zerk eragiten duen, ezta sendagai egokiena zein den ere, tratamenduak ere bat baino gehiago baitaude.

Zapatuan mahai informatiboa jarriko duzue Iralan.

Bai, jendeak gaixotasuna zer den ezagutu dezan, eta esklerosidunek gaitza ez ezkutatzeko.

**BANKINTER**  
www.bankinter.com

Eta orain zure hipoteka  
**%3,5\***  
Euribor-a + %0,50 garbia, ondoren

\*Lehen sei hilabeteak, 35 urtera arte.

Herrilagunak 2, BERGARA 943 76 91 50

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

**Radio Bergara**

Etxetresna elektrikoak  
Sakelako telefonoak  
Lanparak  
Opariak

**San Pedro 25  
BERGARA  
943 76 19 89**

**Silvestre Muñoz, s.l.**  
pinturak

Pintura-lanak orokorrean  
•  
Pintura industrialia  
•  
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82  
610 25 40 37  
943 76 24 11  
Amillaga 1, 10 pabilioia.  
20570 BERGARA

**BOLU SUKALDEAK**

Zure sukaldearen diseinua eta aurrekontua konpromiso barik

Bolu, 22-behea  
BERGARA  
Tel. eta faxa: 943 76 27 02

- TB Zinema etxean
- Hifi
- DVD
- Bideoa

**telkar**  
Etxetresna elektrikoak  
Ibargarai 2  
943 76 27 11

*Berriztuta!*



## MASTERREKAKO ERRETIRATUAK PERTXAN

**P**ertxak 25 urte bete dituela-eta, Masterrekako erretiratu guztiak bazkaritara gonbidatu zituzten elkarteko kideek. Joan zen abenduaren 1ean izan zen hori. Horrela, hasierako urteetako ohiturei heldu diete elkartekoek. 30 lagunetik gora egon ziren bazkarian. Masterrekako nagusienei, gainera, omenalditxo ere egin zieten; Felix Egureni eta Maritxu Erdabideri, hain zuzen ere. Lore sorta bana eta bonboi kaxa bana eman zieten. Horra hor, argazkian, bazkarian egon ziren erretiratuak Esteban Garmendia Pertxako presidentearekin.

## POL-POLEN AZOKA TXIKIA

**E**skiatzeko denboraldia heltzen denean, urtero egin ohi duen moduan, Pol-Pol mendizale taldeak azoka txikia antolatu du aurtengoan ere. Astelehenean zabaldu zuten, eta bihar, zapatua, izango da azkeneko eguna. Gaur, egubakoitza, 19:00etatik 20:30era, eta bihar 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Azoka horretan bigarren eskuko eskiak eta mendiko materiala egongo da salgai. Erosketak egiteko beste aukera bat, beraz, Pol-Polen egoitzan daukazuena.



## Herri asanblada

abenduaren 20a, eguna  
UNEDeko aretoan  
iluntzeko 7etan

### EGITARAUA :

- 1-Herriko mahaiaren osaketa bozkatuko da
- 2-02rako Bergarako plangintza bozkatuko da
- 3-Eskualdeko plangintza bozkatuko da

## Bergara ezkertzale eta abertzalea eraikitza goaz

## batasuna

## Herri mintegia

abenduaren 15a, zapatua  
Elementalean  
goizeko 10:30ean

### EGITARAUA :

- Arloko plangintzak lan taldetan tajutuko dira;**
- euskara, kultura, irakaskuntza,
- lurralde antolakuntza, sozioekonomia.

# AZPEITXI

## Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00

## Ion Murgizu

Orotariko pintura  
Iztukuak  
Papereztaizeak  
Imitazioak

Esozia etorbidea 24, 2. behea  
SORALUZE  
943 75 13 24 / 652 777 030  
iion@euskalnet.net



## GAZTELU BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



BERGARARRAK MUNDUAN

AMAIA ARRIETA

28 URTE / BANKUKO LANGILEA / LONDRES

“Ingelesak nahiko hotzak eta itxiak dira; oso zaila da euren zirkuluetan sartzea”

AINTZANE IRIZAR

**H**arantz eta honantz ibili da urte askotan Amaia. Orain, Bergarara etorri da etxe-koekin aste batzuk pasatzera: “gogo handia neukan Bergarara etortzeko; askotan etorri izan naiz, baina izango dira zazpi bat urte bi aste jarraian ez ditudala pasatu Bergaran”. Ikasketengatik joan zen Amaia Bergaratik kanpora. Master bat egitera joan zen; Oxforden, Madrilen eta Parisen egin zuen master hori. Behin ikasketak bukatuta, Parisko banku batean hasi zen lanean.

“Parisen, alde batetik, gus-tura nengoen, baina lanarekin nekatuta ere banengoen”, azaldu digu. Horrela, Londresen lana aurkitu eta haraxe joan zen. 1998an izan zen hori. Gero, Parisera bueltatu zen berriro.

Iaz, ezkondu zenean, Londresera bueltatu zen berriro, eta hantxe bizi da ordutik. Alde batetik, ez ei dauka kexatzeko arrazoirik, baina era berean, ez zaio Londres gehiegi gusta-

tzen. “Egia esan, ez dut kexatzeko arrazoi larregi eduki; izan ere, lanpostu onak izan ditut, Londresko zonalde on batean bizi gara...”. Dena dela, ez du oso gustuko Londres: “han bizi den jende gehiena denboraldi baterako bakarrik dago han, mugimendu asko

**“Ez dut kexatzeko arrazoi handirik: lan onak izan ditut, zonalde on batean bizi gara...”**

dago, eta lagunak egiteko aukera handirik ere ez dago”.

Gainera, “gure lan-mundua mundu bat da, konpetentzia handia dago, eta ezin zara inortaz fidatu”. Oso mundu hotza ei da, itxurakeria handikoa. Euskal Herrian, lagunekin ondo pasatzera ateratzen da jendea; han, berriz, jendeak ikusi zaitzan ateratzen dira. Ingelesak eurak ere oso hotzak eta itxiak ei dira: “oso zaila da lagun ingelesak egitea”, diosku Amaiak.

Oraingoan, Londresen bizitzen jarraitzeko asmoa dauka; eta ez du pentsatzen Bergarara itzultzerik. Gabon zaharrak, behintzat, Bergarako senitarte eta lagunekin pasatuko ditu.



MINGAINARITIRAKA



Jone Igartua

IGARO DENDAKOA

**Jone elgoibartarra da, baiña badira urte batzuk Bergaran bizi dela. Orain dala 13 urtetik dauka Igaro perfumeria, eta Gabonak gainian dauzkagun hontan, lanez gainezka dabil.**

**Gabonetarako dana prest?**

Bueno, erdi-prest. Orain, gainera, euroa dala eta...; lan haundixa emon dosku horrek. Izan be, bi hillabetian bi txanponekin batera lan egin biharko dogu. **Zuendako egun berezixak izango dira Gabon aurreko honek, ezta?** Bai, lan gehixago edukitzen dogu. Azkeneko astian igarri dogu ja mobimentu haundixagua dagola.

**Zer da gehixen saltzen dozuena?**

Gabon gaberako opari haundixaguak egitten dittu jendiak, eta erregetan, berriz, koloniak gehixenbat.

**Zuk ze opari nahi ziñuke jasotzia?**

Nere gizona nerekin egotia Gabonetan. **Zeuk pentsatu dozu zer oparittu?** Bai; azaroan ja pentsatuta edukitzen dot, orain lanpetuta ibiltzen naiz eta.

**Emakumezko ala gizonetzko bezero gehixago izaten ditzuzu?**

Emakumezkuak; baiña, gizonetzkuak be asko etortzen dira, Gabonetan batez be.

**Presumidia zara?**

Bai, pixka bat bai.

**Modia jarraitzen dozu?**

Bai, batez be, nere lanagaittik, modiakin lotuta dago-ta.

**Asteburu baterako plan ideala?**

Mendira jutia, oso mendizalia naiz.

**Gustoko mendi bat?**

Pirinioak, Belagua eta Irati aldia.

**Zerk hasarritzen zaittu?**

Gezurrik; gezurrik tartian ez badago, barkatu leizke gauzak, baiña gezurrekin... **Zerekin hasiko ziñake pozez saltoka?** Preso guztiak euren etxietan ikusitta, duda barik.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Asier Elortza

KUBA / 2000ko abenduan


**A**skotan egiten ditugu bidaiak bizikletaz, eta iazko neguan, abenduan, Kubara joan ginen. Alde batetik, hizkuntzari dagokionez ez genuelako arazorik izango, eta ekonomikoki ere ondo ateratzen zitzaigulako. Bestetik, Kuba bizikletaz zeharkatu zutenen pare bat liburu ere irakurri genituen, eta inbidiak janda jarri gintuzten.

Hiru lagun joan ginen. Santiagotik abiatu eta uharte osoa zeharkatu genuen, hegoalde-tik iparraldera. 1.200 kilometro egin genituen gutxi gorabehera, 17 egunean. Batik bat, barrualdea ikusi genuen. Badago uharte osoa zeharkatzen duen errepide nagusia, autopista, baina guk nahiago izan genuen bigarren mailako errepideetatik ibili; lurrezko pistetatik ere ibili ginen.

Beharbada, hori izan zen bidaiaren alderik onena, barrualdea ezagutu ahal izatea, barrualdeko kubatarren bizi-modua eta ingurunea ezagutzea. Bizikletak aukera hori ematen dizu. Era berean, baina, bizikletaz ibiltzeko ez dira parajerik onenak; alde batetik, bero egiten zuelako abendua izan arren, eta bestetik, oso monotonoa delako: paraje lauak dira, kilometroak eta kilometroak egin eta dena da berdina.

Kostaldea ere ikusi genuen. Paisaiari dagokionez, kostaldea askoz politagoa da: Habana polita da, baina politagoa da Trinidad, Cochinos badia, Cienaga...Baina benetako Kuba, barrualdeko Kuba, turistikoak ez den Kuba hori ezagutzea askoz interesgarriagoa da. Jendearekiko harremana ere askoz gertuagokoa zen barrualdean; jende guztiak hitz egiten dizu, euren etxera gonbidatzen zaituzte. Oso bidaiak gomendagarria da, baina neguan egin beharrekoa, udan bero handiegia egiten du-eta bizikletaz zeharkaldi hori egiteko.

AINTZANE IRIZAR



Kubako barrualdea ezagutu zuten, gehienbat.



**“Bigarren mailako errepideetatik ibili ginen, gehienbat”**

**“Kubako barrualdea ezagutzea izan zen onena”**

GARRAIOAK  
**ANDUZU**  
TRANSPORTES

BERGARA  
607 349 043



**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

**ARDATZA**  
Brikolajea

Ateak eta zokaloak  
Horma-armairuak  
Sarrailak  
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. BERGARA  
Tel. 943 76 20 42

**ARANE**  
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel. 943 76 74 09  
670 483 903



Aurtengo denboraldian 7-17 urte bitarteko 57 lagun ari dira Bergara Igeri Elkartean, Amaia Anduezen esanetara.

IGERIKETA

# Bergarako lau igerilari Gipuzkoako txapelketan izango dira asteburuan

Neritzel Albisua, Elisabeth Laskurain, Goiatz Perez eta Maite Urzelai arituko dira Legazpin

EDU MENDIBIL

**Zapatuan eta domekan, goiz eta arratsaldean, Gipuzkoako Igeriketa Txapelketa Absolutua jokatuko dute Legazpin. Bergara Igeri Elkartean lau ordezkari izango ditu: infantil mailako Neritzel Albisua, Elisabeth Laskurain, Goiatz Perez eta Maite Urzelai.**

Bergara Igeri Elkartea ordezkatzuz, aipatutako lau neskek erreleboko probetan (4x50 eta 4x100 estiloetan) parte hartuko dute. Horrez gain, Neritzel Albisua 100 eta 200 m. bularreko proban izan-

go da lehian, Elisabeth eta Goiatz 200 m. estiloan, eta Maite 50 m. bizkar estiloan. Gipuzkoako Txapelketa Absolutuan parte hartu ahal izateko beharrezkoa zen aurretik gutxienez markak lor-tzea.

**57 LAGUNEN TALDEA**

Amaia Andueza 23 urteko oñatiarra bigarren urtez ari da Bergara Igeri Elkarteko entrenatzaile lanetan. Guztira, 7-17 urte bitarteko 57 igerilari dira taldean. Egunero entrenatzen dira Agorrosingo igerilekuan. Anduezen arabera, "maila ona dugu taldean, eta gogor entrenatzen dira guz-

tiak. Entrenatzeko ez ditugu baldintzarik onenak, gureta kale gutxi daudelako, baina moldatzen gara nolabait. Gimnasioa ere ez da oso aproposa, jende asko dabilelako, eta igerilekuan ibiltzen gara batez ere".

Dagoeneko Igeri Elkartekoek hainbat lehiaketa izan dituzte. Infantil, junior eta promesa mailakoak Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan dabilta, eta benjaminak eta alebinak probintziako mailan. Datorren zapatuan, abenduaren 22an, alebin eta benjaminak Legazpin lehiatuko dira Gipuzkoako beste hainbat talderekin batera.

FOTOKIROLA



**Muruamendiarazek Medinari irabazi**

Iker Muruamendiarazek 22-10 irabazi zion astelehenean Medinari Tolosan, bigarren mailako lau.terdiko txapelketaren finalerdietan. Garaipen bana dutenez, Ikerrek hirugarren partidua irabazi beharko dio astelehenean, finalera heltzeko.

IGERILEKUAK

**Kirol zerbitzuko karneta 2002 urterako**

Kirol Zerbitzuak 2002 urterako karnetak berritzeari ekingo dio laster. Karneta berri-tzea nahi ez dutenek abenduaren 21a baino lehen jakinarazi beharko diote zerbitzuari, ordainketa egin baino lehen. 943 77 91 67.

FUTBOLA

**Bergara-Mundarro, zapatuan Agorrosinen**

Azken jardunaldian Lagun Onak taldeari Azeptian irabazi ondoren (1-2), Bergarako preferente futbol taldeak Mundaroren aurka jokatu du zapatuan Agorrosinen, 15:30ean. Bestalde, BKEko zuzendaritzak gogoratu nahi du, Gabonetako loteria salgai dagoela Deportivo tabernan.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

EMAITZAK

**A MULTZOA**

Amilotx-Komando Piperrak	4-7
Agirrebeña-Bicip. Igartua	11-4
Mongatxurak-Eri	9-2
Bar Ugarte-A Ze Flaxa	7-3
Torrekua-Bar Ganbara	6-3
Bicip. Igartua-Kanpazar	2-8

**B MULTZOA**

Aterpe-Artekale pizzeria	6-3
Bar Bedarreta-Bar Canalejas	2-2
Vacalouras-Etengabe	5-1
Txipiron-Amoskibar	6-5
Irubide-THT	3-5

**C MULTZOA**

Errotagain-Ortzi	10-2
Timofonika-Bayer	1-10
Artusamak-Dedo Pafarru	6-3
Patxaran Team-Argandolas	3-4

SAILKAPENA

**A MULTZOA**

	P	J
1. A Ze Flaxa	24	9
2. Mongatxurak	19	9
3. Agirrebeña jatetxea	19	10
4. Bar Ugarte	16	9
5. Kanpazar Harrobia	12	9
6. Komando Piperrak	11	9
7. Eri	10	9
8. Torrekua	9	10
9. Amilotx	4	8
10. Biciprecisión Igartua	4	9
11. Bar Ganbara	1	8

**B MULTZOA**

	P	J
1. Bar Bedarreta	28	10
2. Bar Canalejas	21	10
3. Aterpe	21	10
4. Vacalouras	17	10
5. Irubide	14	9
6. THT	11	10
7. Amoskibar	10	10
8. Artekale	9	10
9. Txipiron	5	9
10. Etengabe	0	10

**C MULTZOA**

	P	J
1. Errotagain	27	9
2. Artusamak	19	8
3. Dedo Pafarru	16	9
4. Bayer	15	9
5. Argandolas	13	9
6. Pagomendi	12	7
7. Ortzi	7	9
8. Patxaran	3	9
9. Timofonika Team	3	9
10. Bildurbarek	0	0

PARTIDUAK

**ZAPATUAN, BARRUAN**

09:30: Amilotx-Eri. **Dedo Pafarru**  
10:30: Dedo Pafarru-Timofonika. **Amilotx**

**ZAPATUAN, KANPOAN**

17:00: Etengabe-Aterpe. **Mongatxurak**  
18:00: Mongatxurak-Kanpazar. **Etengabe**

**DOMEKAN, BARRUAN**

09:30: Bar Canalejas-Txipiron. **Artekale**  
10:30: Artekale pizz.-Bar Bedarreta. **Antol**.  
11:30: Argandolas-Artusamak. **Antol**.  
16:00: THT-Vacalouras. **Ortzi**  
17:00: Ortzi-Patxaran. **Komando Piperrak**  
18:00: K. Piperrak-Bar Ganbara. **Amoskib**.  
19:00: Amoskibar-Irubide. **Bayer**  
20:00: Bayer-Pagomendi. **Irubide**

ARGI IBILI!

**TORREKUA TALDEAK HIRU PUNTU GUTXIAGO**

Antolatzaileek hiru puntu kendu dizkiote Torrekua taldeari, arbitratzera ez aurkezteagatik. Hurrengoan txapelketatik kanporatuko dituztela adierazi dute antolatzaileek. Bestalde, datorren astebukaeran, abenduaren 22an eta 23an, atzeratutako partidua jokatuko dira Labegaraietako Kirolegian.

GORA ETA BEHERA



**BAR CANALEJAS ETA BAR UGARTE**

Bar Canalejasek bina berdindu zuen Bar Bedarretaren aurka azken jardunaldian. Ez da gutxi, kontuan izanda Bar Bedarretak irabazten ez duen lehenbiziko partidua dela. Bar Ugartek, berriz, A Ze Flaxari irabazi zion (7-3)



**TIMOFONIKA TEAM ETA ORTZI**

Timofonika taldeak zortzigarren aldiz galdu zuen, Bayerren aurka oraingoan (1-10). Partidu bakarra irabazi dute orain arte. Ortzik ere gol zaparrada jaso zuen Errotagain liderraren kontra (2-10).

KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

**Bergara-Vasconia**  
Infantilak. Zapatua. 10:00. Ipintza.  
**Bergara-Santo Tomas Lizeoa**  
Ohorezko mail. kadeteak. Zapatua. 11:30. Ipintza.  
**Bergara-Mundarro**  
Preferente maila. Zapatua. 15:30. Agorrosin  
**Bergara-Aretxabaleta C**  
Bigarren mailako kadeteak. Zapatua. 17:15. Ipintza  
**Bergara-Aloña Mendi**  
Ohorezko maila. gazteak. Domeka. 11:30. Ipintza.

**ESKUBALOIA**

**Bergara-Legazpia**  
Kadete mutilak. Zapatua. 17:45. Kirolegia.

**PILOTA**

**Kluben arteko finalak**  
Zapatuan, hilak 15, Udal Pilotalekuan, 16:30ean.  
**Gabonetako txapelketa**  
Domekan, abenduak 16, Udal Pilotalekuan, 10:00etan.  
**Bergara-Aretxabaleta II** (Lehen mailako seniorrak)  
Gipuzkoako txapelketa. Domekan, hilak 16, Udal Pilotalekuan, 13:00etan.

EMAITZAK

**FUTBOLA**


**Lagun Onak 1 Bergara 2** (Preferente maila)  
**Bergara 3 Zestoa 0** (Lehen errejonala)  
**Bergara 0 Mutriku 1** (Neskak)  
**Mariño 5 Bergara 6** (Ohorez. gazteak)  
**Bergara 3 Elgoibar 2** (1. mail. gazteak)  
**Lagun Onak 5 Bergara 1** (Ohorezko m. kadeteak)  
**Amaiak Bat 1 Bergara 0** (2. mailako kadeteak)  
**Billabona 0 Bergara 6** (Infantilak)

**ESKUBALOIA**

**Bergara 26 Arrasate 24** (Senior mutilak)  
**Bergara 21 Arrate 18** (Senior mutilak)

**PILOTA**

**Elgeta 18 Bergara II 6** (Infantilak)  
**Elgoibar III 9 Bergara I 18** (Infantilak)




**ZINEMA ETXEAN**  
Teknologia aurrerakoiena zure esku

# Herran

## **SUKALDEKO ALTZARIAK**

Vegaşa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4  
943 76 37 53



## **ELEKTRIKAKO TRESNAK**

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3  
943 76 12 22

## **AGOITZ** tapiz denda

Leizariako San Lorenzo, 25. BERGARA. 649 112 675





Patxi Santamaria eta Inazio Tolosa aktoreak dira Laurel eta Hardy.

Bederen 1 antzerki taldeak *Laurel eta Hardy zerura bidean* lana taularatuko du

## Laurel eta Hardy bikotea gaur, Novedades aretoan

MONIKA BELASTEGI

Bederen 1 taldeak Paul Auster idazlearen *Laurel eta Hardy zerura bidean* antzerki lana eskainiko du gaur, egubakoitza, 22:30ean Novedades aretoan. Potoloa eta argala bezala ere oso ezaguna dugun bikotea berreskuratu eta herrira ekarriko digute.

Nork ez ditu ezagutzen Laurel eta Hardy edota Potoloa eta Argala bikotea? Zuri-beltzeko hainbat filmetan ikusi ahal izan ditugu, eta baita euren aldrebeskeriekin barre egin ere. Bederen 1 antzerki taldeak bi pertsonaia horiek Novedades aretora ekarriko ditu, gaur *Laurel eta Hardy zerura bidean* antzerki lanarekin.

Laurel, Patxi Santamaria aktorea dugu; Hardy, berriz, Inazio Tolosa. Zuzendaria Isidoro

Fernandez da, eta antzerki lana, Paul Auster idazlearena da.

### ITSASGIZON ETA IDAZLE

Paul Auster New Jerseyan jaio zen, 1947an. Itsasgizon jardun

zuen hainbat urtetan eta letren munduari Frantzia ekin zion, itzultzaile gisa. Orduetik hainbat eleberriz eta antzerki lan idatzi ditu, gaur ikusteko aukera izango duguna tartean.

## Komedia modernoa

Laurel eta Hardy beste lanegun gogor bati aurre egiteko prest daude. Harresigileak dira lanbidez, harriz harri harresia osatu behar dute, neke handiz. Prest egongo ote dira?

Bi clown dira, eta bizitzako peripeziak, eragozpenak, penak eta alaitasuna azalduko dizkigute Novedadeseko eskenatoki gainean. Beti ere dena zalantzan jartzen, dena hankaz gora jartzen.

Bederen 1 antzerki taldeak eskainiko duen *Laurel eta Hardy zerura bidean* lana komedia modernoa da, tartean absurdoa eta ironikoa; Paul Auster idazlearen luma zorrotzetik sortutako lana, azken batean.

## Musika Eskolako ikasleek kontzertua egingo dute gaur Udal Pilotalekuan

MONIKA BELASTEGI

Musika Eskolako neska-mutikoen kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:00etan.

Soka taldea, Akordeoi Orkestra, Gazteen Banda eta Orkestra Sinfonikoa bakarka arituko dira

emanaldiaren lehen atalean. Bakoitzak bizpahiru laneko erreperitorioa eskainiko du, eta tartean euskal doinu herrikoi ugari izango dira.

Horren ondoren, emanaldia amaitzeko, ondorengo talde hauek arituko dira elkarrekin: Akordeoi Orkestra, Gazteen Ban-

da, Orkestra Sinfonikoa, Haurren Abesbatza, Aurre-hizkuntza, Hizkuntza Musikaleko lehen eta bigarren mailak, eta koraleko ikasleak.

Talde horiek guztiek *Txingar bikantu* herrikoia eskainiko dute, eta zuzendari lanetan Maite Aurrekoetxeak jardungo du.

## Oñatiko Ganbera Abesbatza bihar Mariaren Lagundian

MONIKA BELASTEGI

Oñatiko Ganbera Abesbatza gazteak kontzertua egingo du bihar, zapatua, Mariaren Lagundia ikastolako elizan, 19:30ean. Hogei gaztek osatzen dute taldea, eta erreperitorio zabala eskainiko dute.

Oñatiko Ganbera Abesbatza duela zazpi urte sortu zen. Hastapen haietan, zenbait abesbatzatatik bildutako hamabi gaztek eratu zuten taldea, musika korala lantzeko gogoaz zuten hamabi gaztek, hain justu ere. Urteek aurrera egin ahala, haziz joan da taldea, eta gaur egun hogeitaz lagunek osatzen dute ahots mistoko talde hori.

Zazpi urte hauetan bi zuzendari izan ditu Oñatiko Ganbera Abesbatzak: Gorka Cueva arduratu zen taldeaz hasiera batean, eta gaur egun, berriz, Esteban Urzelai ari da.

Taldearen ibilbidea oso luzea ez den arren, zazpi urte baino ez baititu, hainbat herri eta ekitalditan aritu da: Ordizia, Orereta, Arrasate, Gasteiz eta Mutriku, besteak beste.

Bestalde, aipatzekoa da 1997an Villa de Aviles lehiaketan parte hartu zuela, eta baita ere, iaz, 2. saria jaso zuela lehiaketa berean.

Horrez guztiaz gainera, Lausardi Koru Sinfonikoaren partaide ere bada Oñatiko Ganbera Abesbatza.

### ERREPERTORIO ZABALA

Abesbatza gazte horrek egiten duen erreperitorioa zabala da: XVI. mendean hasi eta gure garairarte arteko lanak biltzen ditu. Erreperitorio zabal horren barruan, hainbat herrialde eta estiloko musika batzen dute, hala nola, gospela, musika afrikarra, euskal kantak, kanta espiritualak, eta beste hainbat.

Bihar, zapatua, 19:30ean, Mariaren Lagundia ikastolako elizan eskainiko duten emanaldian, erreperitorio zabal horren erakustaldiaz gozatuko dute bertara hurbilduko diren entzule guztiek.

Emanaldia bi zatitan egongo da banatuta, eta bakoitzean zortzi lan eskainiko dituzte. Lehenengoan honako hauek, beste batzuren artean: C. Tye-ren *Laudate Nomen Domini*, P.T. Roballoren *Ronda Catonga* eta S. Rachmaninov-en *Ave Maria*. Eta bigarren zatian, batzuk aipatzearen ondoko hauek: H. Schütz-en *Deutsches Magnificat*, N. Lindenberg-en *Counsel to Girls*, A. Donostiarren *Oi Bethleem* eta J. Guridi-ren *Ator ator*.



Argazkian Oñatiko Ganbera Abesbatzako kideak.

## Orkestra, Arrasaten egingo duten Katuska zartzuelan

MONIKA BELASTEGI

Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoarekin batera, Katuska zartzuelan hartuko du parte Bergarako Orkestra Sinfonikoa. Bi emanaldi eskainiko dituzte: bihar, zapatua, lehenengo, eta domekan bigarrena. Bi emanaldiak, ireki berri duten

Arrasateko Amaia Antzokian izango dira, 19:30ean.

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren arduratu da zartzuela antolatzeaz, eta Bergarako Orkestra Sinfonikoa, musika egiteko kontratatu dute. Bergarako Orkestrako 35 kide izango dira, hain justu ere, zartzuelari musika jarriko diotenak.

E, TXO!

GUREGAIK/ MUSIKA

BERGARA EZAGUTZEN

Jardun euskara elkarteak antolatzen duen "Bergara ezagutzen" lehiaketan parte hartu nahi baduzue, datorren eguaztenera arte, abenduak 19, daukazue izena emateko aukera. Lehiaketa hori 14 eta 18 urte arteko gazteen dako da, eta 10-15 lagunekoko taldeak osatu behar dituzue. Lehiaketa otsailaren 1ean hasiko da eta egubakoitzero jokatu-ko dira saioak, Kartzela Zaharrean.

BEIRA MARGOTZEN

Bihar, zapatua, Zabalotegin, Udal Euskaltegiaren egoitzan duzue hitzordua Kuadrillategikook, arratsaldeko 15:30ean. Beira zela margotzen den ikasi ahal izango duzue biharko tailerrean.

GAZTERIA ERRETRATATUTA

Eusko Jaurlaritzak oraingo astean bertan eman ditu jakitera "Gazteriaren erretratuak 1999-2000" ikerketa soziologikoaren emaitzak. EAEn egin dute ikerketa hori, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean.

Gai askoren inguruko datuak jaso dituzte ikerketa horretan, baina, hona hemen atera dituzten ondorio garrantzitsuenetakoak: oro har, langabezia, etxebizitzaren prezioa eta indarkeria dira euskal gazteen kezka nagusiak. Bestalde, gazteen hiru laurden elebitasunaren alde azaltzen da. Hamarretik bederatzik euskal herri-tartzat du bere burua. Azkenik, hona hemen beste datu esanguratsu bat: gazteek konfiantza handia dute gobernuz kanpoko erakundeengan, %77k, hain zuzen ere, instituzioengan baino konfiantza handiagoa.

# Musika Gida, musikari gazteendako aukera

AINTZANE IRIZAR

**Talde berriek nahikoa lan izaten dute musika munduan tokia lortzeko. Promozionatzeko hainbat aukera dagoen arren, hona hemen horietako bat, interneteko musika gida, hain zuzen ere.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen du aukera hori bere web orrialdean. Musika Gidaren orrialdera iristeko [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) orrialdean, gazteria zerbitzura jo beharko duzue.

Musika Gida horretan, Gipuzkoako taldeen zerrenda bat daukagu eskuragarri, bakoitzaren fitxa eta guzti. Talde bakoitzaren abesti bat entzuteko aukera ere

ematen digu orrialde horrek. Beraz, musika talde berri bat baldin badaukazue, aukera polita daukazue orrialde horretan zuen taldea promozionatzeko. Musika Gidan bertan azaltzen zaizue zer egin behar duzuen, zuen taldea zerrendan azaltzeko.

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

Baina ez da musika taldeen zerrenda musika gidak eskaintzen duen zerbitzu bakarra. Besteak beste, aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen du. Zerbitzu hori, sortzera doazen taldeei zuzenduta dago, batez ere. Bestalde, agenda, musikari buruzko albisteak eta musikarekin lotutako beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditu.



ARTXIBOA

X-At talde bergarra, esaterako, Musika Gidako zerrendan aurkitu dezakegu.

LOTSABARIK/ Sherezade Moreno

# "Lasai itxura izan arren, jenio txarra dut"

AINTZANE IRIZAR

**Aurten hasi da Sherezade Haur hezkuntzako ikasketak egiten. Txikitatik irakasle izatearekin amesten zuen, eta horretarako ikasten dihardu. Zalantzan egon den arren, Real Madrilen zalea dela ere aitortu digu.**

• Txikitari, zer izan nahi zenuen?

Kiroletako irakaslea.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?

Mutil lagunarekin ezkondu eta umeekin; eta ia lan on bat topatzen dudan irakasle moduan.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Ordenatuagoa izateko, logela hankaz gora edukitzen dut-eta.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Pelota sartzea, gurasoak pozik edukitzea; nire kasuan, adibidez, ordenatuagoa izanez.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehenetasuna?

Osasunari eta familiari, batik bat.

• Zure bertute bat?

Oso alaia naizela.

• Eta hutsune bat?

Jenio txarra daukadala; kanpotik, lasai itxura daukat, baina gertukoekin, etxeakoekin, batez ere, jenio txarrekoa naiz.

• Zerk amorratzen zaitu?

Gabonetako hipokresia.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Ezpanak, potoloak dauzkadako eta hori gustatzen zait.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Lehendabizi aurpegiari, begiei eta ezpanei bereziki. Gero, izakerari garrantzia handia ematen diot.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Nik ez dakit seduzitzen, naizen modukoa azaltzen naiz, eta horixe egin behar dela uste dut, gainera.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Eta hori erantzun behar dizut? Ez, ez. Hori norberarendako gorde behar da.



ADINA: 18 urte • IKASKETAK: Haur hezkuntza • ZALETASUNAK: Kiroiak, batez ere, eskubaloia eta futbola • LIBURU BAT: "Verónica decide morir", Paulo Coelhoena • FILM BAT: Braveheart • MUSIKA TALDEA: Mikel Urdangarin • KIROL TALDEA: Real Madrid

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate



## ZAHARREN ETXETIK



E.M.

San Joxepeko abesbatzako kideak Mizpirualde Egoitzan ateratako argazkian.

## San Joxepeko korua Gipuzkoako erretiratuen abesbatzen topaketara

EDU MENDIBIL

San Joxepeko abesbatzak, martitzenean, abenduaren 18an, Zumaian ospatuko den Gipuzkoako erretiratuen abesbatzen topaketan parte hartuko du. Probintzia osoko dozena bat talde bilduko dira Zumaiaiko ekitaldian.

San Joxepeko abesbatza orain dela zortzi urte sortu zen, eta gaur egun 44 lagun ari dira taldean. Martitzenero entseatzan dute San Joxepeko lokalean, arratsaldean, eta gaur egun Patxi Azkarate antzuolarra dugu abesbatzako zuzendaria. Aurretik Nicomedes Larrañaga zena eta Amaia Familiar aritu ziren zuzendari lanetan. Azkaratek duela bi urte onartu zuen zuzendari izateko eskaera: "nire osaba bat abesbatzan dabil, eta haren bitartez egin zidaten zuzendari izateko proposamena. Ni oso gustura ari naiz beraiekin, eta gure artean dagoen giroa nabarmenduko nuke". Lanbidez okina da Patxi Azkarate, eta Antzuolako abesbatzarekin

ere ibiltzen da. Bere esanetan, "San Joxepeko koruak maila polita dauka, eta ahalik eta ondoen abesten saiatuko gara martitzeneko topaketan. Ea kantaldi ona egiterik dugun. Lehiaketarik ez dagoenez, nerbioak alde batera uztea izango da onena. Iaz ere Lasarteko topaketan izan ginena,

### Azkarate-Askasua-oren omenez

**San Joxepekoek Eustaquio Azkarate-Askasua apaiz bergararra (1884-1965) omendu nahi dute Zumaian. Hori dela eta, Azkarate-Askasua konposatutako bi kantu eskainiko dituzte martitzenean. San Joxepeko hainbat kide Don Eustakioekin kantuan aritutakoak dira. Konpositore, zuzendari eta organo jotzaile bikaina izan zen Azkarate-Askasua.**

eta oso esperientzia ona izan zen guretako".

Martitzenean, arratsaldeko 5etan Zumaian izango den topaketan, honako kantu hauek eskainiko dituzte San Joxepekoek: *Iluna dago gaua*. *Au gabaren* izeneko Gabon kanta (Eustakio Azkarate-Askasua), *Ave Maria Purisima* eliza kanta (Azkarate-Askasua), *Egin lo* sehaska-kanta (Brahms) eta *Bukaerako ereserkia* (Zapirain konpositorearena).

### EGUBERRIAK PROGRAMA

Bestalde, urtero bezala, Diputazioak, bakarrik edo bikotearekin bizi diren 65 urtetik gorakoei zuzendutako "Eguberriak" programa martxan jarri du. Interesatuek, Gabon-gaua eta Eguberri eguna Donostiako Igeldo hotelen igarotzeko aukera izango dute. Argibideak, Udaletxeko Ongizate Zerbitzuan (943 77 91 65 telefono zenbakia). Izena ematea Diputazioako zenbakian ere egin daiteke (900 43 43 43) abenduaren 19a baino lehen, astelehenetik egubakoitzera, 9:00etatik 14:00etara.



### Gabonetako herri jolasak San Joxepen

Astelehenetik eguenera bitartean, Gabonetako herri jolasak izango dira San Joxepe elkartearen. Astelehenean, abenduak 17, tute txapelketa jokatuko dute, martitzenean zortzi erregeko mus txapelketa, briskakoa eguaztenean izango da, eta, azkenik, billar txapelketa (banaka) eguaztenean. Txapelketa guztiak 16:00etatik aurrera jokatuko dituzte. Eguenean, abenduaren 20an, sari banaketa eta opari zozketa egingo dute, 17:00etan. Era berean, abenduaren 21ean, Santo Tomas jaia ospatuko dute 17:00etan, Gabon jaiak hasteko.

## ZAHARREN TXOKOTIK

### Jon Ariño

EUSKADIKO KONTSUMITZAILEEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

**Jon Ariño Euskadiko Kontsumitzaileen elkartearen presidentea hizlari izan zen astelehenean San Joxepen. Mediku bilbotarrak elikadurari buruz jardun zuen.**

**Zein da pertsona nagusiei gehien komeni zaien elikadura mota?**

Oro har, animalia koipeen gehiegizko kontsumoa dago gaur, eta horiek hainbat patologiararen eragile dira, bihotzeko eta zirkulazio-arazoak tartean. Hori prebenitzeko, dieta mediterranea deritzana gomendatzen da: barazki gordinak, oliba olio, arraina (arrainaren koipeak kolesterola gutxitzen baitu) eta esnekiak (osteoporosia saihesteko hain zuzen).

**Kontsumitzaileen elkartearen presidentea izanik,**



**Gabonetarako gomendiorik emango zeniguke?**

Jan eta edaterakoan gehiegikeriekin kontuz ibili behar da, eta hobe da Gabonetako hainbat produktu tipiko (bisigua adibidez) baztertzea, prezioa altuegia izaten delako. Gabonetan ere neurritz kontsumitzailea eskatzen dugu.

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Zubillaga 10  
ONATI  
943 78 24 13

# DENA 100etik

ZURE  
OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3  
BERGARA

TOKI-ONA  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel. 943 76 39 53



# ARRI

Industri  
hornidura

Zubiaurre, 30  
BERGARA  
Tf. eta faxa:  
943 76 19 04.  
Sakelakoa:  
656 78 64 84.

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein da Ola aldean dagoen baserri honen izena?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Sasiakazia

*Robinia pseudoacacia*

MAITANE ARIZABALETA

**B**aldintza onenetan hogeita bost metro har dezakeen zuhaitz hosto erorkorra. Oso azkar hazten da eta 200 urte bizi daiteke. Adarrak indartsuak eta bihurriak dira, adar gazteak aldiz, eraldatuak diren arantzez hornituta daude. Hostoak inparipinatuak dira, forma eliptiko-obalatuak dute, gainaldetik berde distiratsuak, eta grisagoak azpialdetik. Loreak zuriak dira, eta udaberrian loratzen dira, udazkenean kolore marroiko leka zapalduak ematen dituztela.


Batik bat erreka ondoan hazten den espeziea izan arren, parke, pasealeku eta kaleetan, garai batean apaingarri gisa, asko landatu zen zuhaitza dugu akazia. Basogintzan ere egin izan dira saioak. Bestalde, espezie kolonizatzailea da lur mugitu eta desforestatuetan, eta behin sartuz gero, oso zaila da kentzea.

Erabilera anitz dituen zuhaitza da. Alde batetik, hostoak ganadua elikatzeko erabiltzen dira, eta beste-tik, sutarako erregai ona da. Egurra kalitate onekoa dugu, esolak, postea edo nekazaritzarako lanabesak egiteko, nekez usteltzen baita.

*“Batik bat errekontotan hazten den espeziea izan arren, apaingarri gisa asko landatu izan da”*

GALDEDEBALDE

- |   |  |   |
|---|--|---|
| <p><b>1.</b><br/>Zein da “Laurel eta Hardy zerura bidean” antzerki lanaren egilea?</p> <p>A/ Paul Auster.<br/>B/ Paulo Coelho.<br/>C/ Patxi Santamaria.</p> | <p><b>2.</b><br/>Nora egingo dute hurrengo bisita ornitologi-koa Mendia Bizirik eta Pol-Pol taldeek?</p> <p>A/ Urkulura.<br/>B/ Salburuara.<br/>C/ Sarriesera.</p> | <p><b>3.</b><br/>Zein da Bergara Igeri Elkarteko entrenatzailea?</p> <p>A/ Jesus Jauregi.<br/>B/ Juanina Garai.<br/>C/ Amaia Andueza.</p> |
|---|--|---|



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**JON ARANTZABAL**entzat izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Joni!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Madura** / Galde debalde: 1-B, 2-A, 3-C.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Cojonudos zainzuriak

13-16 zainzuriko kaja (lodiak).

**2,40 €**

399 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



EDU MENDIBIL

**MITOR**

**TABERNA**

Kruz Gallastegi, 1. BERGARA. 943 76 54 69

**JAUJA KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**Aldoka Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

**Larkano**

KIROL OINETAKOAK  
ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17.  
BERGARA.  
Tf. 943 76 25 03



BERGARA  
**Gorka Egaña**  
20an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Eugenio Jaso**  
14an 72 urte.  
Urte askotarako!  
Iloba Maika.



BERGARA  
**Aitor Franco**  
15ean 8 urte.  
Urte askotarako  
txapeldun! Etxekoak.



BERGARA  
**Andoni Kalbano**  
14an urtebetetzea.  
Urte askotarako! Arreba  
eta lehengusuak.



BERGARA  
**J. Ramon Madinabeitia**  
15ean urtebetetzea.  
Zorionak aittitta!  
Joanes eta Garazi.



BERGARA  
**Maite Arantzabal**  
14an 10 urte. Zorionak!  
Familiakoak, koadrilakoak  
eta Iñaki Mardaras.



BERGARA  
**Francisco Moreno**  
14an 42 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Jon Marzo**  
14an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Iñaki Martinez**  
14an 37 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Xabier Aldai**  
17an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Aitaxo eta amatxo.



BERGARA  
**Iker Aldai**  
17an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Aitaxo eta amatxo.



ELGETA  
**Mikel Agirregomezkorta**  
19an 10 urte. Zorionak!  
Eskolako lagunak



ELGETA  
**Maite Agirregomezkorta**  
19an 10 urte. Zorionak!  
Eskolako lagunak



BERGARA  
**Gorane Polanco**  
18an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Aitaxoe eta amatxo.



BERGARA  
**Amaia Basterra**  
14an urtebete. Urte  
askotarako! Etxekoak;  
batez ere, Alazne.



BERGARA  
**Lierni Elgero**  
14an 13 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta koadrila.



BERGARA  
**Marina Iturriaga**  
17an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Aitziber.



BERGARA  
**Markel Muniategiandikoetxea**  
18an 3 urte. Urte  
askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Maribel Soto**  
14an 27 urte.  
Urte askotarako!  
Asier.



BERGARA  
**Lide Madinabeitia**  
19an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

BABESLEA

Gabonetako  
opariak  
egiteko...



**ERREBELATUAK** Album bat, Kopia index-a eta erroilu bat opari.  
**ARGAZKIGINTZA DIGITALA** eta oro har argazkigintzaren  
inguruan behar duzun material guztia.  
**ZERBITZU DIGITALA** Erretratu zaharren eta bestelakoan  
konponketak, fotomuntaiak eta abar..  
**ESKANER ZERBITZUA** Argazki, diapositiba edo  
gardenkiak eskaneatzeko bidea. Curriculumerako,  
Interneterako, eta abar..  
**KOPIA DIGITALAK** Artxibo informatiko batetik. (Disketea,  
optikoa, zip-a, CD rom-a...)

ARGAZKI • Barrenkalea 16 • Tel. / Faxa: 943 76 20 66

**Adi!**

Hurrengo zenbakian, **abenduaren 21etik urtarrilaren 11ra** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.  
Argazkiak, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

**REMENTERIA**  
Altzariak

Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan

Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29



Urteaga 9  
BERGARA  
Tf. 943 76 18 45

**BERGARA**  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA  
943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77

**Kabutzia**

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tf. 943 76 56 62

Lepoan hartu ta  
segi aurrera



**ARRANO**  
Taberna

Kruz Gallastegi, BERGARA.  
943 76 02 54

**Mujika**  
gozotegia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34



Asteburuetan bertako  
babak eta saiheskia

SALBADOR 10 ELGETA  
Tf. 943 76 82 73

BERGARAN  
BULEGO BERRIA



INMOBILIARIA

BERGARA  
Ibargarai 3.  
943 76 97 97

LEGAZPI  
Santikutz 8.  
943 73 05 25

10 URTEKO  
ESPERIENTZIA!

**etxalar**

kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
BERGARA  
943 76 50 68




# GRUPO **RKUZ**

1950-2001





**TXE MOBEL**  
MUEBLES ALTZARIEN

Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



**RKUZ**  
ALTZARIEN


Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABAETA**



**RKUZ**  
ELETRAGAILUAK

Asunción, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABAETA**

**expert**



**RKUZ**  
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABAETA**

**FAGOR**

**50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.**

**Eskerrik asko emandako konfiantzagatik**

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 14a / 94. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

## Jolas erakusketarekin hasiko da asteburu honetan Gabonekin lotutako ekitaldi sorta

AINTZANE IRIZAR

Erakusketak, kontzertuak, umeendako jolaslekuak... denetik antolatu dute aurten ere herrian, Gabonei begira. Asteburu honetan bertan hasiko da, gainera, Gabonekin lotutako ekitaldi sorta, Kulkik egingo duen jolasen erakusketatailerarekin.

Gabonekin zuzenean lotutako erakusketa bat egongo da udaletxean asteburu honetan bertan: jolasen erakusketa egongo da, hain zuzen ere. Kulki elkarteak egingo du, eta egubakoitz eta zapatuan egongo da zabalik udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Egubakoitzean herri eskolako umeendako bakarrik zabalduko dute; zapatuan, berriz, herri osoari zabalduko diote, eguerdiko 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Gabonak gertu daude, eta jostailuak izaten dira Gabonetako protagonista nagusietakoak. Horregatik antolatu dute erakusketa hau orain, egun hauetan.

### GURASOENDAKO, BATEZ ERE

Erakusketa ez da umeendako bakarrik, ezta gurasoei bakarrik zuzendutakoa ere. Denek dute zer ikusi eta zer ikasi erakusketan. Hala ere, Kulkiko kideen esanetan, "gurasoei zuzenduta dago bereziki". Izan ere, gurasoek indar handia dute umeengan, eta garrantzi handia dauka gurasoek umeekin jolas egiteak.



Hamar txokotan banatuta egongo da jolasen erakusketa, eta Kulkiko kideak hantxe izango dira azalpenak emateko.

*Kulki elkarteko bi kide egongo dira jolasen erakusketan, bertaratuko direnei azalpenak ematen*

Mezu bat helarazi nahi diete erakusketara joango direnei: jostailuak, erosteaz gain, egin ere egin daitezkeela, eta jostailuak

*Abenduaren 20rako antolatu dute eskolako ikasleek Santo Tomas feria, urtero moduan*

egitea bera ere jolasa dela. Hamar txokotan antolatuta egongo da; txoko bakoitzean jolas mota bat landu ahal izango da. 90

*Kaleak kantuz jantziko dituzte abenduaren 24an herriko hainbat taldek*

jostailu baino gehiago egongo dira guztira. Hantxe egongo dira Kulkiko kideak beharrezko azalpen guztiak emateko prest. "Bat

baino gehiago konturatuko da, jolaserako material bakarra ez direla salgai dauden jostailuak", azaldu digute Kulkiko kideek.

### GABONETAN HAINBAT EKITALDI

Abenduaren 20an, berriz, feria izango dugu Herri Eskolaren aurrealdean, Santo Tomas feria, hain zuzen ere. Eskolako umeek eurek egingo dute feria urtero moduan. Animaliak, baserriko produktuak, etxean egindako gozoak...denetik egongo da feria horretan. Zozketa bat ere egingo dute ikasle nagusiek: txerriak zozkatuko dute. Arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara izango da hori; ondoren txorizoa eta txokolatzea hartzeko aukera egongo da, gurasoek prestatuta. Bergarako Musika Eskolako ikasle antzularren kontzertua ere egongo da abenduaren 20an udaletxean, arratsaldeko 19:00etan.

Abenduaren 24an kantari aterako dira kalera eskolakoak, kantatu kalejira egingo dute. Ez dira, baina, egun horretan kantura aterako diren bakarrak izango; izan ere, herriko abesbatzak ere egingo du kantu kalejira, eta euskal presoen aldeko kantu kalejira ere egongo da egun horretan bertan.

Txistularien kontzertua, berriz, abenduaren 30ean izango da, seguruena, baina oraindik ez da behin betiko data. Metal boskotea izango dute lagun kontzertu horretan, urtero moduan.

Urtarrilaren 4an, azkenik, umeendako jolas parkea egongo da frontoian, goiz eta arratsaldean.



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak  
Teilatuak  
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1.a., ANTZUOLA.  
Tf. 943 76 60 89

GoROSTI

Taberna

943 76 62 96  
Zurrategi plaza  
ANTZUOLA

**BASERRIZBASERRI/ Ugarriagaazpikoa**



**BERGARAREKIN MUGAN** Herrigunetik bost kilometro pasatxora dago Ugarriagaazpikoa. 1586. urtekoa da Galartzako baserri honi buruzko lehen aipamena, baina Oarriaga izenarekin. Aipatzekoa da izenaren beraren jatorria: Muga-Arri-Agatik dator baserriaren izena, hau da, "mugarriaren tokia", gutxi gorabehera; izan ere, Antzuola eta Bergararen arteko muga egiten zuen. 1946an erre egin zen eta goitik behera konpondu behar izan zuten. Baserri honen inguruan badago 1795ean frantsesek protagonizatu-tako istorio bat: frantsesak baserrira sartu, eta Andres de Gavilondori dirua eskatu zioten; honek dirurik ez zuela erantzun eta tiro batekin hil zuten. Bi etxebizitza daude: baten Gregorio Muruamendiaraz eta Maria Larrañaga bizi dira; bestean, Jose Maria Muruamendiaraz, Rosario Alberdi eta Asier, Aitor eta Iker semeak./AINTZANE IRIZAR /ITURRIA: IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZEN 'ANTZUOLAKO BASERRIAK ETA ERROTAK'

**ATREBENTZIAEZPADA/ Ze irtenbide emongo jatzun saihesbidiaren arazuari?**



**JON VALLE**  
28 urte

Uste dot errotondak egin biharko lirakela, goiko eta beheko sarreretan. Señalizaziñua jarritta be, jendiak ez dau bezozidadia errespetatzen.



**NORA LEGORBURU**  
23 urte

Ez dakitt. Belozidade seiñaliak jartziakin ez da ezer lortzen; irtenunien be danok aspertuta gare. Semaforuak jartzia izan leike soluziño bat.




**PURITA ZABALO**  
67 urte

Zezer egin biharra bada-go. Ez dakitt ze egin bihar-ko litzaken, igual semaforuak jarritta poliki-txuago ibilliko lirake kotxiak.



**MARCELINO POZO**  
45 urte

Igual, onena semaforuak ipintzia izango litzake, ia kotxiak polikitxuago ibiltzen diran. Señalizaziñua alperrekua dala uste dot.



**JOSE MANUEL ARREGI**  
50 urte

Beasain-Durango egittia, baiña atzeratu danez, oraingo bidia hobetu biharko litzake. Erron-tondaren bat ipiñi-edo, abiadura murrizteko.

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA/LARRIALDIK**  
DYA ..... 943 78 71 57  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
Medikua ..... 943 76 62 23  
Praktikantea ..... 943 76 63 80  
Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46  
Ertzaintza ..... 943 76 53 40

**UDALA**  
Udaletxea ..... 943 76 62 46  
Liburutegia ..... 943 76 60 65

**BESTELAKOAK**  
Idolaz ..... 943 78 60 12  
Herri ikastetxea ..... 943 76 62 68  
Jubilatuena elkartea ..... 943 76 62 71  
Abadetxea ..... 943 76 64 16  
Anelkar (Kontxi) ..... 943 78 70 65  
Taxiak:  
Antonio Fernández ..... 669 15 65 40  
Jesus M. Fernández ..... 607 31 85 60

**MEZAK**

**ANTZUOLAKO PARROKIA**  
Lanegun eta zapatuetan: 19:30  
Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30  
**UZARRAGAKO PARROKIA**  
Domeka eta jaiegunetan: 10:00

**OHARRAK**

**ZORION ETA URTEURRENAK**  
Gogoratu ezazue zuen lagun edo senitartekoak zoriontzeko aukera duzuela antzuolarrok ere BERRIGARA aldizkarian. Ez duzue Bergarara etorri beharrik izango. Antzuolako liburutegian laga ditzakezue argazkiak, astelehenero, 17:00etatik 19:00etara. Bestalde, ezkontzera doazen, ezkondu berri diren edota ezkontzako urteurrena ospatzen duten lagun edo senideak zoriondu nahi izanez gero, BERRIGARAko egoitzara ekar dezakezue argazkia edo 943 76 03 97 telefonora deitu.

**140.000 PEZETA BRASILERAKO**  
Abenduaren leian Anelkarrek antolatutako festan 140.000 pezeta batu zituzten, Brasileko Canudos herrirako. Bidezko Merkataritzako produktuak salduz, berriz, 112.000 pezeta lortu zituzten. Anelkarrekoak pozik azaldu ziren lortutakoarekin, baina jende askorik ere ez zen ibili festan.

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**Igor eta Txomin**



Margoak  
orokorrean

ANTZUOLA  
609 157 131

BERGARA  
609 150 164



*Juan Cruz*  
ARGAZKIAK

Herriko plaza 4. ☎ 943 78 70 66. ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2001eko abenduaren 14a / 79. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

## Espaloia Kafe Antzokia proiektua aurrera eramatea erabaki du Kultura batzordeak

OXEL EROSTARBE


Martitzeneko Kultura batzordean erabaki zuten Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua Toledo Taldeko arkitektoei esleitzea. Udaleko alderdi guztiak ados daude aretoari mugimendua emateko aukera onena Goibekok aurkeztutakoa dela.

Duela bi urte Udala Maala inguruan dagoen aretoa barrutik egokitze lanekin hasi zenean ekin ziren Goibeko Kultura Elkarteak Espaloia Kafe Antzokian pentsatzen.

Dagoeneko proiektua eskatu diote Toledo Taldeari. Haiak hil eta erdi beharko dute proiektua egiteko. Bitartean, guztiak proiektuaren inguruan adostasunera heltzeko zenbait batzar egingo dituzte.

### GOIBEKO KULTURA ELKARTEA ARDURATUKO LITZATEKE ESPALIOAZ

Atzo, batzar orokorra egin zuten Goibekokok, eta aztertu beharreko gai nagusietakoa Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua zen. Batzarra egin aurretik, Iban Arantzabal elkarteak presidentea



Miloi eta erdi inguruko aurrekontua izango du Espaloia Kafe Antzokiko proiektua egiteak.

esan zigunez, bi urte eta gero proiektuak argia ikusiko duela dirudi. Haren esanetan, "elkar-teak asmo osoa du Espaloiarekin jarraitzeko, baina aurrez taldeekin adostasuna lortu eta ekono-

mikoki bideragarria den ere ikusi behar da".

Ibanen esanetan, Elgetak inoiz izan ez duen kultura mugimendua lortzea da helburua. Esan zigunez, "elkar-tea prest dago

proiektuan buru-belarri murgiltzeko. Dagoen aukera pasatzen uztea ez litzatekeela ona. Hori ikusi behar dute Udalak, EAJk, Batasunak, Guraso Elkarteak eta Kontseilu Eskolarrak".

### HERRITARREN HITZA / Rebeka Ubera • Irakaslea

## Zornotza bizirik

Batek baino gehiagok izenburu hau irakurri duenean, pentsatuko zuen okerreko aldizkarira bidali dudala artikulu hau. Baina ez, horixe izan da nire asmoa, bertan gertatzen ari denak garbi asko utzi baitu politikarientzat, orokorrean, pertsonok dugun balio eskasa; gurekin botoa eskatzerako orduan gogoratzen dira, promesa ederrak eginez eta gero, hor konpon! Badirudi ez zaiela inporta herriak pentsatzen eta garbi asko adierazten duena, bueno... komeni zaienean errazegi erabiltzen dute euren ahoetan "herriaren nahia";

baina benetako orduan gai izan dira herriari adierazpen eskubidea ezeztatze-ko. Ikaratu gabe, hainbeste gustatzen zaien "demokrazia" santu honen barruan. Oraingoan, berriz, herritarrek partida xume bat irabazi dute, euren herriko agintarien laguntzaz; azken finean, politikari hauek herriak aukeratu baititu beraien ordezkari izateko.

Azken urteotan hainbat



"Badirudi ez zaiela inporta herriak pentsatzen eta adierazten duena"

tzen ari dira, garapen jasangarria bideratzeko, erreserba naturalak zaintzen, esaten

borrokatan dihardute herritarrek, naturarekin, geure bizi-iraupenarekin loturiko eta goitik datozkien inposaketen aurka: Itoitz, Abiadura Handiko Trena, zentral termikoak (Zornotzaren kasua)... Alor honetan izugarritzko kontraesana ikusten da agintarien aldetik: alde batetik, 21 Agenda bultza-

digute kutsadura murriztu behar dela... Baina bestetik, beraien ekintzekin alderantzizkoa adierazten dute aurrerapena aitzakiatzat hartuta; ingurumenaren aurka egiten dute, azken finean, euren buruari, denon buruari harrika eginez eta etorkizuna hipotekatuz. Pentsatzen dut hainbat alditan errepikatzen duten lana, aurrerapena, ingurumenarekin orekan joan daitekeela, hau da, batera joan daitezkeela askotan frogatu den bezala, burua erabili eta inbertsio egokiak eginez gero, eta ez kanpotik datorkigun guztiari bai, bai esan.

*Kultura batzordean Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua esleitu zuten*

*Miloi eta erdi pezeta kostako da proiektua egitea, eta hil eta erdian aurkeztuko dute*

*Iban Arantzabal: "Bi urte eta gero, Espaloia proiektuak argia ikusiko duela dirudi"*

### LABUR

## Gabonetako oporretan haur parkea izango da

Maya Ingurumen Taldekoek eta Udalak Gabonetako haur parkea antolatu dute aurten ere.

Abenduaren 28an, herri kirolak, txokolate-jana eta lehiaketak izango dira.

Urtarrilaren 3an, eskulana eta sukaldaritza.

Urtarrilaren 4an, tonbola eta musikarekin jolasteko aukera izango da.

Egun horietan, pilotalekuan izango da haur parkea, arratsaldeko 15:30etik 18:00etara.

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIXAK**

Medikua	943 76 81 93
DYA	943 46 46 22
Gurutze Gorrixa	943 22 22 22
Odol emailiak	943 76 16 24
Hies Ekimena	943 79 26 99
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaillak	943 78 28 00

**GARRAIUAK**

Taxiak	943 79 12 22
Pesa	902 10 12 10

**UDALA**

Buleguak	943 76 80 22
Faxa	943 76 82 89
Kirroldegia	943 76 82 84
Eskola	943 76 82 26

**BESTELAKUAK**

Parrokixia	943 76 81 45
San Andres Parrokixia	943 20 11 51
Farmazia	943 78 81 50
Goibeko K.E.	943 78 90 85
Goibekokale (Goienkaria)	943 79 92 71
Gaztetxea	943 78 90 43
Guraso Elkartia	943 76 82 26
Ozkarbi K.J.E.	943 76 81 49
Intxorta K.J.E.	943 76 81 46
Ozkarbi Pilota Taldea	943 76 81 49

**MEZAK**

Zapatuetan	11:00-19:30ean
Domekatan	12:00-12:00etan

**OHARRAK**

**GOIBEKO KULTURA ELKARTEKO GABONETAKO LOTERIXIA**

Herriko denda eta tabernatan saltzen dago Goibeko Kultura Elkartaren Gabonetako loterixia.

Abenduaren 22an izango dan zozketan 60.788 zerbaki-xakin hartuko dabe parte.

Ia dirutxo batzuk herrira ekartzen dittuen.

**ERRETRATU ZAHARRAK**

Seguru zuetako askok erretatu zahar mordua dauzkazuela etxian gordeta.

Erretratu horrek Goibekokalen argitaratu nahi izan ezker, gurekin harremantetan jartzia besterik ez daukazue. Honetarako 943 76 92 71 telefonora deitu zeinkie, edo udaletxe azpitan dagon Goibekokaleko buzoian laga zeinkie erretratu.

Erretratu Goibekokalen agertu, eta bueltatu egingo dotsuegu.

**IRAKURLIAREN TXOKUA**

Irakurliok, zuen eritziza emoteko eta dittuzuen keak kalera ataratzeko, hau atalau erabili zeinkie. Komeni da astelehenak aurretik, zuen eritziza, Udaletxe azpitan dagon Goibekokaleko buzoian lagatzia edo bestela goibekokale@goiena.com helbidera bialtzia.

Gutunak 1.700 karaktere ingurukua izan biharko dabe.

Gutunakin batera, izen abizenak, telefonua eta nortasun agiri zenbakia bidaltzia garrantzitsua da, argitaratu aurretik zuekin harremantetan jarri gaittezen. Animatu zuen eritziza kalera ataratzera.

**GAZTETXEA**

**Etsaiak taldeak "Kaos" disko berria aurkeztuko du gaur gauean Gaztetxean**

O.E.

**Gaur gaueko 22:30etik aurrera Lekeitiotik etorritako hard-rock doinuak nagusituko dira Gaztetxean. Parasmak emango dio hasiera kontzertuari. Ondoren Etsaiak talde ezagunak, Durangoko Azokarako kaleratu berri duen "Kaos" diskoa aurkeztuko du.**

Mexiko eta Kubatik bira egin ostean, gaur gauean Elgetan aurkeztuko du Etsaiak taldeak bere zortzigarren lana. Durangoko Azokarako kaleratu berri duten "Kaos" diskoan 13 kantu bildu ditu Lekeitioko taldeak.

Doinu gogorrak batu dituzte disko honetan. Soinu sampler eta scratchen bidez eguneratu eta gogortu egin dutela adierazi digute Etsaiak taldekoek.

Lekeitiarrak Elgetako Gaztetxera etorri diren bigarren aldia izango da. Aurrekoan emandako kontzertuarekin eta egon zen giroarekin oso gustura geratu ziren

Etsaiakeko partaideak, eta hori izan da berriro Elgetara etortzeko arrazoi nagusietakoa.


Aurrekoan bezala, gaurkoan ere Parasmako lagunak izango dituzte lagun Etsaiakekoek. Talde hau ere gora egiten ari da. Ohikarekin "Parasma" diskoa kaleratuta daukate. Doinu gogorrak entzuteko aukera paregabea.

Gaztetxeoek, aurrerantzean ere kontzertuak egiten jarraitzeko asmoa azaldu dute. Dagoeneko zenbait talde ezagun lotuak dituzte, eta data zehatza finkatua ez dagoen arren, urtarrilean Beta-garri taldea etorriko dela adierazi digute. Horiek ere Durangoko Azokan kaleratu duten disko berria ekarriko dute Elgetara.

**PARTIS TXAPELKETA**

Domekan, abenduak 16, partxis lehiaketa izango da Gaztetxeoek antolatuta.

Parte hartu nahi duten guztiek izena eman beharko dute Gaztetxean bertan arratsaldeko 16:30ak aurretik.



Etsaiakeko abeslariarekin egon ginen Durangoko Azokan

**KIROLA**

**Gabonetako pilota txapelketa aurrera**

O.E.

**Guraso Elkarreak eta Ozkarbi pilota taldeak Gabonetako pilota txapelketa antolatu dute aurten ere. Iaz bezala, hainbat mailatan lehiatuko dira neska-mutikoak. Izen ematea nahi dutenek Udaletxean daukate horretarako aukera.**

Zabalik dago aurtengo Gabonetako pilota txapelketan izena emateko epea. Parte hartu nahi duten neska-mutuek Udaletxera joan beharko dute, eta han, Juan Ramoni izena eman.

**UBERA ETA LASKURAIN FINALERA**

Aurreko eguaztenean Arrasaten partida bikaina jokatu eta gero, DV txapelketako finalean izango dira Xabier Ubera eta Haritz Laskurain. Agera eta Argote izango dituzte aurkari abenduaren 22an Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu den partidari.

Gipuzkoako klubaren arteko txapelketan ere bikain ari dira Ozkarbiko mutilak, izan ere finalerako sailkatuta daude.

Zapatuan arratsaldeko 16:30ean Bergarako Udal Pilotalekuan jokatu dute finala Xabier eta Haritzek, Sorrarain eta Baezen aurka.



Xabier eta Haritzek partida gogorra jokatu zuten Arrasaten.

  
**Elgeta-Piel**  
Neguko denborealdi berria

Astelehenetik barikura:  
17:00-20:00  
Zapatuak:  
10:00-13:00 eta 17:00-20:00  
Domekak: 11:00-13:30

Domingo Iturbe 8, ELGETA  
943 76 81 12

**Uriburu UTEK saltzen du:**  
Domingo Iturbe kalean  
**ETXABE KOMERTZIALA**  
Etxe berrien azpian  
**PREZIO INTERESGARRIAK**  
943 76 11 23  
670 781 759

  
Jesus Mari Montiel  
**ITURGINTZA**  
**ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3  
Mo: 656783299 Eibar  
Tel: 943 70 07 19  
**KONPONKETAK**  
**SUKALDE**  
**ETA BAINUGELETAN**

## ERRETRATU ZAHARRA

Gabonetako Belen  
bizixa egitten zanakua

**G**abonak be inguratzzen dabiz, eta konturatu orduko urte barrixan murgilduta egongo gara danok.

Ale honetako erretratu zaharra 1.960 ingurukua da. Azkenengo urteetan herriko neska mutikuek egitten daben moduan, orduan be egitten zeбен Belen bizixa.

Herriko neska mutikuak gabon kantuak kantatuaz ibiltzen ziran orduan be, argazkixan ikusi geinken moduan, pandero eta guzti.

Egun politta izaten zan, izan be, herriko neska-mutikuek, kantatu biharreko kantuak ikasten eta gurdixa bihar zan moduan gertatzen lan haundixa egin bihar izaten zeбен.

Erretratuan agertzen diran danak ezin izan dittugu ezagutu. Gurdixan ezkerretan dagona Kontxi Gorrotxategi da. Zeintzuk diran jakittia lortu ez dogun arren, gurdi gañian bi aingeru ikusi geinkez. Ezkerreko aingeruan onduan, bizar eta guzti dagona, Jose Antonio Retolaza da. Jesus gurtzen daren bi umietatik, mutilla Sebastian Arantzabal dala badakigu. Ia zuek asmatzen dozuen zein dan neskatillia, guk ezin izan dogu eta.

Urtero moduan, aurten be, Gabon egun bezperan eskolako neska-mutikuek herriko kaliak alaittuko dittue Gabon kantak abestuaz.

**Argazkia:** Joakin Gastesi  
**Urtea:** 1960



## NOLA ALDATU DIREN GAUZAK

Urez bete  
aurretik eta  
urez beteta

**A**ixolako urtegi ingurua paraje ederra da pasiaratxo bat egittia gustoko dauken danendako.


Urtegixa egin aurretik be, paraje politta zan Aixolakua, izan be, basarri eta zelai ederrak batzen ziran bertan. Urtegixa urez bete zanian, Aixola Behekua zan, biztanliak zekaittun Elgetako basarri bakarra. Herrira etorri bihar izan ziran bizitzera.



**± 1982** Argazkixa urtegixa egitteko lanak egitten zebizenekua da. Basarri, errota eta zelaiak ur azpitan geratu ziran betirako.



**2000** Gaur egunian Eibar eta Ermura eruaten dabe ura Aixolatik. Jende ugari ibiltzen da urtegiaren inguruan pasiaratxua egitten.



**Manufacturas  
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikuluak
- Seinalez tapena
- Jantziak

Leizeaga 1. BERGARA  
Tf. / faxa 943 76 59 53.



**Zumelaga**  
JATETXEA

59 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**Zuri Beltz  
margoak**

Barnealde eta kanpoaldean  
erreforma  
Pintura zerbitzu osoa  
Moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59  
Bergara



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25  
BERGARA

R.P.S. N° 164/99 I.L.G.

<p>O.P.: 8.800 pta. (52,89 €)</p> <p><b>GABONETAN</b> 6.850 pta. (41,17 €)</p>	<p>OHIKO PREZIOA 14.500 pta. (87,15 €)</p> <p><b>GABONETAN</b> 11.500 pta. (69,12 €)</p>
<p>O.P.: 18.700 pta. (112,39 €)</p> <p><b>GABONETAN</b> 13.700 pta. (82,34 €)</p>	<p>O.P.: 7.900 pta. (47,48 €)</p> <p><b>GABONETAN</b> 5.950 pta. (35,76 €)</p>
<p>O.P.: 3.950 pta. (23,74 €)</p> <p><b>GABONETAN</b> 2.600 pta. (15,63 €)</p>	<p>O.P.: 16.000 pta. (96,16 €)</p> <p><b>GABONETAN</b> 11.000 pta. (66,11 €)</p>
<p>O.P.: 8.990 pta. (54,03 €)</p> <p><b>GABONETAN</b> 6.800 pta. (40,87 €)</p>	<p>O.P.: 3.400 pta. (20,43 €)</p> <p><b>GABONETAN</b> 2.400 pta. (14,42 €)</p>

**HIRUGARREN MUNDUAREN IKO SOLIDARIOAK**

**MULTIOPTICAS**  
BERGARA  
ARRASATE  
ORDIZIA  
EIBAR  
ERRETERIA

Ekarri erabilitako betaurrekoak eta guk behar handiena dutenei bidaliko dizkiegu. Trukean, deskontu bonoa emango dizugu betaurreko berriak eros ditzazun.

**ASKO EGIN DEZAKEZU**

Bergara, Arrasate, Ordizia, Eibar eta Erreteriariko Multiopticas-ek deskontu bono bat jaulki du, herrialde behartsuenei laguntzera anima zaitzen.

MULTIOPTICAS-ek bere gain hartzen du betaurrekoak dagokien tokira helarazteko erantzukizuma.

**4.600 DESKONTU BONO**  
PEZETARAINOKO  
27,65 €

**MULTIOPTICAS**  
*Zorionak 2002*



BERGARA  
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE  
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA  
Tel. 943 88 99 88



EIBAR  
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA  
Tel. 943 51 78 11

# GABONAK, GABONAK, HAU ZORIONA!

OLENTZERO EGUNEAN, ABENDUAREN 24an,  
11:00etan ESKOLAN ELKARTUKO GARA  
HERRITIK ZEHAR GABON KANTAK ABESTEKO  
Gurasoentzako entseguak:  
abenduaren 13,18 eta 20an ikastetxeko aretoan 18:30ean.



**IRRATSAIO BEREZIAK**  
abenduaren 17,18,  
19 eta 20an, 13:15ean  
Gabon kantak entzuteko  
aukera izango dugu  
Eskola Irratian.  
**F.M. 108.0**



ABENDUAREN 20an , ARRATSALDEKO 15:15ean  
**HAUR HEZKUNTZAKO IKASLEEN GABONETAKO JAIALDIA**  
ESKOLAKO ARETOAN.

**GONBIDATUTA ZAUDE!**



**SAN MARTIN AGIRRE**  
herri ikastola

Bono Laskurain 25  
943 76 21 47  
182 posta kutxa  
20570 Bergara



UNITED COLORS  
OF BENETTON.

UNITED COLORS OF BENETTON.

UNITED COLORS OF BENETTON

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE • 943 79 50 78